



# IKASTETXEKO KONTINGENTZIA PLANA

2020-21 IKASTURTEA


**IRULEGI**  
IKASTETXE PUBLIKOA





# AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA</b>	<b>4</b>
<b>2. HELBURUAK</b>	<b>5</b>
<b>3. PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA</b>	<b>6</b>
3.1. Arduradunak	6
3.2. Jarraipena eta ebaluazioa	6
<b>4. SEKTOREAK ETA BIZIKIDETZA TALDE EGONKORRAK</b>	<b>7</b>
4.1. Sektoreak	7
4.2. Bizikidetza-talde egonkorak	9
<b>5. AGER DAITEZKEEN EGOERAK</b>	<b>10</b>
5.1. 1. egoera: Normaltasun berria	10
5.2. 2. egoera: Sektoreen blokeo indartua	11
5.3. 3. egoera: Sektoreen arteko erabateko blokeoa	11
5.4. 4. egoera: Ikastetxea itxita	12
<b>6. ANTOLAKETA NEURRIAK</b>	<b>13</b>
6.1. Ordutegiak	13
6.2. Sarrerak eta irteerak	13
6.3. Joan-etorriak ikastetxean	19
6.4. Patioa	19
6.5. komunen erabilera	21
6.6. Gela berezien erabilera	24



<b>6.7. Eskola-garraioa</b>	<b>25</b>
<b>6.8. Jantoki zerbitzua</b>	<b>25</b>
<b>6.9. Eskolaz kapoko jarduerak</b>	<b>27</b>
<b>6.10. Irakasleen eta PASen inguruko neurriak</b>	<b>27</b>
<b>6.11. Familien eta bestelako langileen inguruko neurriak</b>	<b>27</b>
<b>7. SEGURTASUN ETA HIGIENE NEURRIAK</b>	<b>28</b>
<b>7.1. Garbiketa-plana</b>	<b>28</b>
<b>7.2. Maskarak erabiltzea</b>	<b>31</b>
<b>7.3. COVID-19 kasu baten aurreko jokabidea</b>	<b>31</b>
<b>7.4. COVID-19 aurrean kalteberak diren irakasle eta ikasleak</b>	<b>33</b>
<b>8. ANTOLAMENDU-NEURRI PEDAGOGIKOAK</b>	<b>34</b>
<b>8.1. Aldaketa pedagogiko eta kurrikularrak</b>	<b>34</b>
<b>8.2. Gaitasun digitala indartzeko Plana</b>	<b>36</b>
<b>8.3. Irakaskuntza ez-presentzialaren Plana</b>	<b>38</b>
<b>8.4. Hornidura teknologikoa</b>	<b>43</b>
<b>9. PLANAREN JAKINARAZPENA</b>	<b>44</b>

2020-2021 ikasturterako Irulegi IP-ko Kontingentzia Plana Nafarroako ikastetxeetarako Hezkuntza eta Osasun Departamentuek emandako argibideetan oinarrituta dago.

Gaur egun dagokigun osasun krisialdi egoera dela eta prebentzio neurriak hartu behar ditugu arlo guztietan, eskolan bereziki. Plan honen ezarpenak ondorio esanguratsuak ekarriko dizkigu eskolaren antolamenduan eta erabaki metodologikoetan, batez ere ikasle taldeen arteko harremana murriztuko edo desagertuko delako.

Hala ere, Irulegin egoera berezi hau beste prozedura eta balore berri batzuk ikasteko aukera bezala bizi nahi dugu, orain arte ezagutu ez ditugunak, besteak beste, elkartasuna, Komunikazio eta Informazio Teknologietan sakontzea, norberaren eta guztien garbitasun errutinak barneratzea edo testuinguru berrietara egokitzeko sormena eta baikortasuna erabiltzea.

Argi dago kalte handiena harreman fisiko eta sozialetan izango dugula. Honek sortuko dituen gabezia emozionalak irudimena erabiliz eta talde egonkorretan antolatuko diren dinamika aberasgarrien bidez ordezkatzeko saiatuko gara.

Bitzta dinamismoa da eta eskola bizitzen bizitzeko irakasteko dago, ezusteko aldaketei eta harrizten gaituzten egoerei egokitzen ikasiz. kontaktu sozialeko modu berriak, begiradak irakurtzen eta begiekin irribarre egiten ikasiko dugu. Hau guztia gure ezagutza eta baloreen motxila pertsonalera igoko dugu.

Denboraldi hau geroz eta motzago posible egiteko guztien elkarlana behar dugu. Horregatik Plan honen irakurketa garrantzitsua da eta bertan aipatzen diren prebentziozko neurriak Hezkuntza Komunitate osoko kide guztiek errespetatzea.

Honako Plan honi etengabeko jarraipena egingo diogu sortu ahal diren egoera eta baldintza berrietara moldatu ahal izateko.

## 2

## HELBURUAK

Kontingentzia Planak honako helburu hauek ditu:

- Hezkuntza Administrazioak aurreikusitako eszenatoki ezberdinei egokitzeko antolaketa eta prebentziozko neurriak ezartzea.
- Hezkuntza Komunitateko sektore ezberdinen segurtasun eta baldintza higienikoak bermatzea.
- Egoera berriari egokitutako bai ikasle eta baita irakasleentzat pautak metodologiko eta plan formatibo berriak ezartzea.
- Eskola bizitzako kide ezberdinei aurreikusitako egoera ezberdinetarako hartutako neurriei buruz informatzea.

# 3

## PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUZIOA

### 3.1. Arduradunak

Zuzendaritza taldeak Planari jarraipena egingo dio, ardurak honela banatuz:

NEURRIAK	ARDURADUNA
ANTOLAKETA-NEURRIAK	Zuzendaria
SEGURTASUN ETA HIGIENE-NEURRIAK	Idazkaria
NEURRI METODOLOGIKO ETA KURRIKULARRAK	Ikasketa Burua

### 3.2. Jarraipena eta ebaluazioa

Planaren jarraipena Zuzendaritzaren asteroko bileretan burutuko da. Era berean, PKBren bileretarako gai-zerrendan hamabostean behin Planaren ebaluazioa sartuko da, zikloetan sortutako zalantzak eta iradokizunak bildu ahal izateko.

Ebaluazio hauen ondoren neurri batzuk aldatzea erabakiko bagenu aldaketa horiek Kontingentzia Planean sartuko genituzke bertsioa eguneratuz eta familia, ikasle eta irakasleei jakinaraziz.

# 4

## SEKTOREAK ETA BIZIKIDETZA TALDE EGONKORRAK

### 4.1. Sektoreak

Sektoreak ikasle eta irakasle batzuen taldeak dira espazio zehatz batzuei lotuta daudenak. Egoera edo kutsatze mailaren arabera sektoreen iragazkortasuna handiagoa edo txikiagoa izan ahal da. Kutsatze-foko puntualik egotekotan sektoreak erabat blokeatzera iritsi ahal dira eskola osoa itxi behar ez izateko.


Gure eskolan hiru sektore egongo dira, ziklo bakoitzaren kokapenaren espazioak kontuan hartuta.

1. Sektorea: Haur Hezkuntza
2. Sektorea: Lehen Hezkuntzako 1. zikloa
3. Sektorea: Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloak


Espazioen banaketa ondorengo taulan agertzen da.

SEKTOREA	ESPAZIOAK
1.sektorea: Haur Hezkuntzako zonaldea	Haur Hezkuntzako gelak Psikomotrizitate gela Haur Hezkuntzako pasabideko Komunak
2.sektorea: 1.zikloko zonaldea	1.zikloko gelak 1.zikloko pasabideko komunak Liburutegia Ikasnova gela Musikako gela Bikoizketa 4
3.sektorea: 2.eta 3.zikloko zonaldea	2.eta 3.zikloko gelak Ingeleseko gelak Bikoizketa 1, 2, 3 2. eta 3. zikloko pasabideko komunak

## Beheko solairua



## Lehenengo solairua





## 4.2. Bizikidetza-talde egonkorrak

Bizikidetza-talde egonkorrak elkarrekin denbora luzea emango duten ikasle eta irakasleen taldeak dira. Zehazki, maila bakoitzeko talde bakoitza bizikidetza-talde egonkor bat (1.A, 1.B...) izango da, horren ikasleek eta haien tutoreak osatuko dutenak.

Bizikidetza talde egonkorren partaideek material didaktikoak partekatu ahal dituzte, garbitu eta desinfektatuko direnak, dokumentu honetan agertzen den Desinfekzio Planak arautzen duen moduan.

Gure ikastetxean 18 talde egonkor daude, Haur Hezkuntzan 8 eta Lehen hezkuntzan 10.

1. SEKTOREA			
HH 1.A	HH 2.A	HH 3.A	
HH 1.B	HH 2.B	HH 3.B	
	HH 2.C	HH 3.C	
2. SEKTOREA			
LH 1.A		LH 2.A	
LH 1.B		LH 2.B	
3. SEKTOREA			
LH 3.	LH 4.A	LH 5.A	LH 6.
	LH 4.B	LH 5.B	

# AGER DAITEZKEEN EGOERAK

Hezkuntza Departamentuak ager daitezkeen 4 egoera aurreikusi ditu osasun egoeraren arabera ezarriko direnak.

Irailaren 1ean, agintariek kontrakoa adierazten ez badute, **aldaketak dituen 2. EGOERAN hasiko gara.**

## 5.1. 1. egoera: “Normaltasun berria”

Irakaskuntza presentziala izango da bi etapetan.

Sektoreak ez dira blokeatuta egongo baina beraien arteko interakzioa txikiagotzen saiatuko gara. Interakzioa beharrezkoa izango denean maskararen erabilera eta distantziari buruzko arauak errespetatuko dira.

Irakasleak sektore ezberdinetatik ibili ahal dira eta gela guztiak erabili ahal dira gela berezien erabilera txikiagotuko den arren. Ahal den guztietan espezialistak taldeen erreferentzia geletara joanen dira klasea ematera.

Ekainean adosturiko ordutegia mantenduko da, goiz eta arratsaldeko lanaldia, sarrerak eta irteerak mailakatuak izango direlarik.

Jantoki zerbitzua aktibo egonen da. Eskolaz kanpoko jarduerak eta goizeko harrera aurrera eraman ahal izango dira ikasleen arteko distantziak eta higiene-neurriak errespetatzen.

## 5.2. 2. egoera: Sektoreen blokeo indartua

Irakaskuntza oraindik ere presentziala izan arren jardunaldia jarraia izango da.

Bizikidetza talde egonkorrek gela barruan murrizketarik gabe jarraituko dute baina irakasle espezialistek, salbuespenik gabe, erreferentzia gelara joan behar izango dute.

Gela berezien erabilera debekatuta egongo da, **hautazko irakasgaiak geletan emango dira, erlijioa izan ezik.**


Bai jantoki zerbitzua bai goizeko harrera mantenduko dira baina eskolaz kanpoko jarduerak bertan behera geldituko dira.

## 5.3. 3. egoera: Sektoreen arteko erabateko blokeoa

Irakaskuntza presentziala eta jardunaldi jarraia izango da ikasle guztientzat Osasun Agintaritzak sektoreen bat berrogeialdian jartzen ez badu.

Irakasle espezialistak sektore batean atxikituko dira eta ez dute hemendik kanpo klaserik emango, hurrengo banaketan ikusten den bezala:

1.SEKTOREA	2.SEKTOREA	3.SEKTOREA
HH LAGUNTZA 1	LH LAGUNTZA 1	INGELESA 2
HH LAGUNTZA 2	AL	INGELESA 4
HH LAGUNTZA 3	INGELESA 3	PT
	MUSIKA	LH LAGUNTZA 2
	GORPUTZ HEZIKETA 2	GORPUTZ HEZIKETA 1
	ERLIJIOA	



Hezkuntza Departamenduak ratio berriak finkatuko ditu. Hauen arabera, bizikidetza talde egonkor berriak sortuko dira ikastetxean dauden espazio libreetan kokatuko direnak (gela bereziak).

Ez da jantoki zerbitzurik egongo.

#### **5.4. 4. egoera: Ikastetxea itxita**

Irakaskuntza presentziala geldituko da eta dokumentu honetan zehazten den Arreta Digitalerako Plana martxan jarriko da. Hezkuntza Departamenduak Lehen Hezkuntzako 4. mailatik gorako ikasle guztientzako dispositiboak bermatuko ditu.

# 6

## ANTOLAKETA NEURRIAK

### 6.1. Ordutegiak

Nahiz eta gure eskolan ikasleagoa (305) aldi berean sartzeko nahiko sarrera izan, zuhurtasunagatik eta multzo handiak ekiditzeko sarrerak modu mailakatuan egingo ditugu. Bi txanda sortuko ditugu, bat etapa bakoitzerako.

2. egoeran jarrita, jardunaldi jarraian, honakoak izango lirateke txandak:

9:00-14:00	Lehen Hezkuntza
9:05-14:05	Haur Hezkuntza
14:00-15:15 <b>(konfirmatu gabe)</b>	Jantokia

### 6.2. Sarrerak eta irteerak

Sarrerak eta irteerak modu mailakatuan aurrera eramango dira, patioko eta eraikineko ateen kopuruek zein 6.1. puntuan zehaztutako neurriek erraztuta.

Antolaketa honetarako oinarrizko irizpidea sektoreen banaketa izan da, beraien arteko interakzioa sahistuz.

Ordutegia eta eta sarreretako atek hurrengo koadro eta grafikoan agertzen diren moduan izango dira:


## SARRERAK

MAILA	ORDUA	PATIOKO ATEA	ATE ETA ESKAILERAK	OHARRAK
HH 1.	9:05	P1 (9:10arte irekita)	Gelakoa	Ateraino familia kide baten laguntzarekin soilik
HH 2.	9:05	P1 (9:10arte irekita)	2.A eta 2.B: Gelakoa 2.C: A2	Ateraino familia kide baten laguntzarekin soilik
HH 3.	9:05	P1 (9:10arte irekita)	3.A eta 3.B: Gelakoa 3.C: A2	Ateraino familia kide baten laguntzarekin soilik
LH 1.	9:00	P2 (8:55etatik irekita)	A3 - E3	Familiarik gabe patioako atetik aurrera. Ikaslegoa bere lerrora doa
LH 2.	9:00	P2 (8:55etatik irekita)	A3 - E3	Familiarik gabe patioako atetik aurrera. Ikaslegoa bere lerrora doa
LH 3.	9:00	P1 (8:55etatik irekita)	A2 - E2	Familiarik gabe patioako atetik aurrera. Ikaslegoa bere lerrora doa
LH 4.	9:00	P1 (8:55etatik irekita)	A2 - E2	Familiarik gabe patioako atetik aurrera. Ikaslegoa bere lerrora doa
LH 5.	9:00	--	A1 (Sarrera Nagusia) E1	Bakarrik sartzen dira, banan-banan eta bakoitzaren gelaraino igotzen joaten dira
LH 6.	9:00	--	A1 (Sarrera Nagusia) E1	Bakarrik sartzen dira, banan-banan eta bakoitzaren gelaraino igotzen joaten dira

## IRTEERAK

MAILA	ORDUA	PATIOKO ATEA	ATE ETA ESKAILERAK	OHARRAK
HH 1.	14:05	P1	Gelakoa	Familia kide bat itxoiteko zonaldean egon daiteke
HH 2.	14:05	P1	2.A eta 2.B: Gelakoa 2.C: A2	Familia kide bat itxoiteko zonaldean egon daiteke
HH 3.	14:05	P1	3.A eta 3.B: Gelakoa 3.C: A2	Familia kide bat itxoiteko zonaldean egon daiteke
LH 1.	14:00	P2	A3 - E3	Familiek patioko atean itxoingo dute
LH 2.	14:00	P2	A3 - E3	Familiek patioko atean itxoingo dute
LH 3.	14:00	P1	A2 - E2	Familiek patioko atean itxoingo dute
LH 4.	14:00	P1	A2 - E2	Familiek patioko atean itxoingo dute
LH 5.	14:00	--	A1 (Sarrera Nagusia) E1	Baimena beharrezkoa etxera bakarrik joateko
LH 6.	14:00	--	A1 (Sarrera Nagusia) E1	Baimena beharrezkoa etxera bakarrik joateko

## SARRERAK ETA IRTEERAK



## ATEETAKO ARDURADUNAK

ATEA	ORDUA	ARDURADUNA
P1	8:55etatik	INGELESA 2
P2	8:55etatik	INGELESA 3
A1	8:55etatik	5.B TUTOREA
A2	8:55etatik	PT
A3	8:55etatik	AL



Oraingo egoeran, Plana aurrera eraman ahal izateko, haurren autonomia bultzatuko dugu eta horretarako Lehen Hezkuntzako 1.mailatik aurrera haurrak familiarik gabe patioan sartuko dira. Modu honetan eskola barruan pilaketak sahiestuko ditugu. Honako arau hauek kontuan izango ditugu:

- Haur guztiak eskolara maskara jantzita sartu beharko dira.
- Haur Hezkuntzako ikasleak beraien gelako ateraino edo portxean egingo diren ilaretaraino (2.c eta 3.c kasuetan) familiako kide batekin soilik joan ahalko dira eta bertan tutorea zain izango da. Heldua haurra utzi bezain laister eskolatik kanpo atera beharko da.
- Lehen Hezkuntzako ikasleen familiak ez dira patiora sartuko. Haurrak tokatu zaien patioko atetik sartuko dira lerroan itxoin beharko duten tokiraino (1. eta 2. ziklokoen kasuan) edota zuzenean geletara igoko dira (3. zikloko kasuan). Lehen Hezkuntzako 1. mailaren kasuan, ikasturteko lehenengo astean familia kide batek lerroraino lagundu ahalko die eta tutorearekin eta kideekin utzi bezain pronto eskolatik aterako da.
- 5 minutuko tarte egongo da patioko atea irekitzeko musika jo arte, ikasleak modu ordenatuan sartzeko eta gomendatutako distantziak betetzeko.
- Soilik 3 urtetako familiak egokitzen diren aldiaren lehenengo asteetan geletan sartu ahal izango dira (haur bakoitzeko familiako kide bakarra tutorearen gomendioak jarraituta).

- Haur Hezkuntzako irteeraren momentuan familiek gela bakoitzaren ondoan mugatutako zonaldean (edo dagokien ilaran 2.C eta 3.C kasuan) itxoin beharko dute. Oso garrantzitsua izango da eskolan egoten den denbora ahalik eta gutxien izatea da eta horretarako ahalik eta laisterren atera beharko dira.
- Lehen Hezkuntzako 1., 2., 3., eta 4. mailako ikasleak tutoreek lagunduta patioko ateraino joango dira eta han familiek jasoko dituzte.
- Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikaslegoa etxera laguntza gabe joango dena tutoreari sinatutako baimen bat entregatu beharko dio. Baimen hau ikasturte hasieran banatuko da zeinetan ikaslea etxeraino heldu baten laguntza gabe joateko baimena emango den.
- Oso garrantzitsua da ordutegiak errespetatzea eta puntualak izatea, aurreikusitako ordutegia baino lehenago ez iristea, inolako aglomeraziorik ekiditeko. Etapa bakoitzean 5 minutuko tarte emango dugu patioko atea irekitzen denetik musika jotzen duen arte ikaslegoa poliki-poliki sartzen joateko.
- Haur Hezkuntzako familiek eta ikasleek 2. zikloko ikasleak sartzen diren zonaldea (Haur Hezkuntzako gelen ondoko portxea) hustu arte itxoin beharko dute. Momentu hortatik aurrera beraien geletara sartu ahal izango dira.
- Irakaslegoa sarrera ezberdinetan banatuta egongo da argibideak emateko eta ahalik eta modu lasai eta seguruenean egiten dela kontrolatzeko.
- Patioko atea 9:10ean itxiko dira. Ikasleren bat beranduago etortzen bada sarrera nagusitik sartu beharko da.

### 6.3. Joan-etorriak ikastetxean

Joan-etorriak ikastetxean beti maskara jantzita izanen dira.

Ikasleak gela berezietara edo patiora joateko saio horretan duten irakasleak lagunduak izanen dira.

Noizbait pasabide berean bi ikasle talde elkartuko badira haietako talde bat (topagunetik hurbilen dagoena) topagunean zain geldituko da beste taldea pasatu arte.

Ikasleek komunera joan behar dutenean banan-banan eta modu autonomoan egingo dute, irakasleen laguntzarik gabe.

### 6.4. Jolas-denbora eta patioaren erabilera


Bi jolas-txanda izango ditugu egunean, bat Haur Hezkuntzako haurrentzat eta bestea Lehen Hezkuntzakoentzat.

Txanda bakoitzean patio osoa erabiliko da baina ziklo bakoitzari (Lehen Hezkuntzako kasuan) eta maila bakoitzari (Haur Hezkuntzako kasuan) zeharkatu ezin den eremu baliztua egokituko zaio.

Eremu balizatu bakoitzari ikasleek erabili ahal izateko komun bat egokituko zaio.


Patiora joateko sektore bakoitzak irteetarako dagozkien eskailerak erabiliko ditu, 6.2. puntuari zehazten direnak, 3.zikloko ikasleak izan ezik, azken hauek A4 (atezaintza ondoan dagoena) atetik atera eta sartuko dira.

## PATIOKO ZONALDEA



### ZONALDE ETA KOMUNEN BANAKETA

MAILA	IRTEERA	SARRERA	ZONALDEA	KOMUNAK
HH 1.	10:30	11:00	2	Gelakoak
HH 2.	10:30	11:00	3	Gelakoak 2.C HH-ko pasabidea, A2 ondoan
HH 3.	10:30	11:00	2	Gelakoak 3.C HH-ko pasabidea, A2 ondoan
LH 1.	11:15	11:45	1	Polikiroldegiko aldagelak
LH 2.	11:15	11:45	1	Polikiroldegiko aldagelak
LH 3.	11:15	11:45	3	2.zikloko pasabidean (K9)
LH 4.	11:15	11:45	3	2.zikloko pasabidean (K9)
LH 5.	11:15	11:45	2	Patioko zuzeneko komunak
LH 6.	11:15	11:45	2	Patioko zuzeneko komunak



Ezin izanen da kirol jolaserako materialik erabili, baldin eta parte-hartzaileen artean kontaktu fisikoa badakarte.

Hamaiketako gelan hartuko da patiora irten aurretik.

Iturriak itxita egonen dira.

## 6.4. Komunen erabilera

Sektore bakoitzari komun zehatz batzuk esleituko zaizkio. Ikasleek autonomoki erabiliko dituzte, hemen zehazten diren araei kasu eginez:

- Komunen barruan dauden pertsonen kopurua mugatuko da, segurtasun-tartea bermatzeko. Kopuru hori gainditzekotan besteak zain geldituko dira pasabidean.
- Komunen okupazioa “libre/okupatuta” kartelen bidez adieraziko da. Modu honetan, kabina bat beteta dagoenean atean egongo den kartela biratuko behar dugu. Horrela barruan norbait dagoen ala ez ikustea erraztuko da.
- Bi kabina bakoitzeko bat itxiko da, segurtasun-tartea mantendu ahal izateko.
- Bi konketa bakoitzeko bat itxiko da segurtasun-tartea mantendu ahal izateko.
- Haur Hezkuntzako komun en antolamendua taldeetako tutoreen ardura izanen da. Bainugela bakoitza bi taldek konpartitzen dutela kontuan hartuta bizikidetza talde egonkor ezberdinetako ikasleak ez dira aldi berean egongo.

Taula honetan sektore bakoitzean erabilgarri dauden komunak eta hauetan batera egon ahal den gehiengo pertsonen kopurua zehazten dira.

<b>KOMUNETAKO ERABILERA</b>				
<b>SEKTOREA</b>	<b>GELAKO DENBORAN</b>	<b>GEHINEZKO KOPURUA</b>	<b>PATIOKO DENBORAN</b>	<b>GEHIENEZKO KOPURUA</b>
<b>1</b>	K1		K1	
	K2		K2	
	K3		K3	
			K7 (2.C-3.C HH)	5
<b>2</b>	K12	5	K9	4
	K13	5		
<b>3</b>	K9	4	K5	4
	K10	5		
	K11	5		
<b>AZL IRAKASLEGOA</b>	K5	4		
	K6	1		
	K14	1		
<b>JANTOKIKO LANGILEAK</b>	K8	2		

# BEHEKO SOLAIRUKO KOMUNAK



## 1.SOLAIRUKO KOMUNAK





## 6.6. Gela berezien erabilera

Arau orokor gisa eta 1. egoeran egon arren, ikastetxeko gela bereziak ahalik eta gutxien erabiliko dira. Erabiltzekotan tarteak mantentzeko neurriak (talde ezberdinetako ikasleak elkartu behar badira) eta higiene neurriak (kasu guztietan) hartuko dira. Taula honetan ikastetxean dauden gela bereziak zehazten dira, zeintzuk erabili ahal izango diren eta erabileraren murrizketak.

GELA	ERABILGARRIA	OHARRAK
Psikomotrizitatea	Ez	Bakarrik HH1-ko lo-kuluxka
Liburutegia	Bai	Talde egonkorreko talde txiki batek erabiliko du eta berrogeialdian 15 egun utziko da beste talde batek erabili ahal izateko
Ikasnova	Bai	Talde egonkorreko bikoizketak egiteko eta irrati edota bideo lan bereziak egiteko
Musika gela	Ez	
Ingelera 1	Bai	Erlijiorako eta talde egonkor bereko bikoizketak egiteko
Ingelera 2	Ez	
Bikoizketa 1	Bai	Talde egonkor bereko bikoizketak egiteko
Bikoizketa 2	Bai	AL eta PT saio individualentzat
Bikoizketa 3	Ez	Bakarrik COVID-19rako isolamendu gela bezala
Bikoizketa 4	Ez	Bakarrik COVID-19rako isolamendu gela bezala



## 6.7. Eskola-garraioa


Eskualdeko garraioa Hezkuntza Departamenduaren jarraideen arabera antolatuko da:

- 3 urtetik gora, maskara erabiltzea nahitaezkoa izanen da.
- Haur Hezkuntzako ikasleak handiagoekin jarriko dira txandakatuak.
- Autobus geltokian segurtasun-tarteak gordeko dira, ilara ordenatuan, autobusera igotzeko aurreko atetik, eta aurreikusitako banaketari jarraikiz eseriko dira autobusean, atzekoak lehenik eta ondoren aurrekoak. Jaistea, berriz, kontrako hurrenkeran egingen da, aurreko eserlekuetatik hasita, pilaketarik gabe, eta autobuseko pasabidera ateraz lasai, jaisteko txanda iristen zaienean.
- Autobusera igo eta jaistean, begiraleak ontzia bete hidrogela izanen du eskura, ikasle bakoitzaren eskuak desinfektatzeko.

## 6.8. Jantoki-zerbitzua

Gure ikastetxean bi jantoki ditugu, bat Haur Hezkuntzako ikasleentzat eta beste Lehen Hezkuntzakoentzat. Honi esker ikasleak ez dira pilatuko eta segurtasun-tarteak errespetatu ahal izango dira. Bi txanda egingo ditugu 3 urteko ikasleei arreta indibidualizatuagoa eta lasaiagoa eman ahal izateko.

13:20	HH 1. maila
14:00	HH 2. mailatik LH 6. mailara
	HH 1. mailako lo-kuluxka



Bizikidetza talde egonkor ezberdinen mahaien artean 1,5 metroko tartea egongo da gutxienez eta banatzeko manparak erabiliko ditugu.

Jantokiko langileak ikasleen bila beraien geletara joanen dira 3. ziklokoak izan ezik jantokira ordenean eta autonomoki joango direnak zikloko irakasle batek gainbegiratuta.

Mahai aurrean eseri aurretik ikasle guztiek eskuak ur eta xaboiz garbituko dituzte. Haur Hezkuntzako ikasleek haien gelako komunean (edota pasabideko komunean 2.C eta 3.C kasuan) garbituko dituzte. Lehen Hezkuntzakoek jantokiko konketetan, modu ordenatuan, talde egonkorak. Talde egonkor bakoitzak konketak erabilitakoan jantokiko langileek txorrotak desinfektatuko dituzte.

Lo-kuluxka Psikomotrizitate gelan egingo dute. haur bakoitzak koltxoneta bat, manta bat eta maindire bat izango dute izenajarrita. Maindirea eta manta ostiralero garbitzera eramango du etxera asteburuan.

Bazkaldutakoan ikasleak patiora ala gelara joanen dira. Astelehen, asteazken eta ostiraletan Haur Hezkuntzakoek erabili ahal dute patiora; astearte eta ostegunetan, Lehen Hezkuntzakoek. Bi kasuetan goizeko jostaldian ziklo edo maila bakoitzari dagokion zonaldea errespetatuz. Patiora joaten ez diren ikasleak erreferentzia gelan geldituko dira jantokiko langileek gainbegiratuta. Maila bakoitzeko gelen artean dagoen atea irekita egonen da begiraleen lana errazteko baina ikasleak ezin izango dira gela batetik bestera pasatu.

Euri-egunetan dagozkien egunetan patiora irten ahal izanen dira zonalde estaliak erabiliz.

## 6.9. Eslolaz kanpoko jarduerak

Guraso Elkartearekin batera eskolaz kanpoko jarduerak bertan behera uztea erabaki dugu osasun egoera hobetu arte.

## 6.10. Irakasleen eta AZLen inguruko neurriak

Nahitaezkoa da maskara erabiltzea lagun arteko 1,5 metroko tartea gorde ezin den egoera guztietan, ikastetxeko barneko joan-etorrietan eta jostaldian.

Maskararen erabilera guztiz gomendagarria da txikiekin lan egitean bere bizikidetzat talde egonkorra ez bada eta heziketa premia bereziak dituzten ikasleekin aritzean.

Irakasleen gelako ordenagailuak erabilitakoan desinfektatuko dira.

Irakasleen gelan, bulegoetan, atezaintzan, sukaldean eta jantokietan gel hidroalkoholikoa langileen eskura egongo da.

Irakasleen gela eskola saio bakoitza bukatzean aireztatuko da.

## 6.11. Familien eta bestelako langileen inguruko neurriak

Ahal den gehien ikastetxekoak ez diren pertsonen presentzia mugatuko da.

Sartzen diren guztiek nahitaez maskara eraman behar dute osasun-agintariek eman eta indarra duten gomendioei jarraikiz.

1. egoeran familiendako arreta aldeztatik hitzordua eskatuta eta segurtasun tartea errespetatuz egingo da. 2. egoeratik aurrera telefono edo telematika bidezko arretari lehentasuna emango zaio.

# 7

## SEGURTASUN ETA HIGIENE NEURRIAK

### 7.1. Garbiketa-plana

Ikasturtea hasi aurretik kontrataturiko enpresak garbiketa eta desinfekzio orokorra egingo du. Garbiketa orokor hau Gabonetako eta Aste Santuko oporren ondoren errepikatuko da.

Eskola eguna bukatutakoan gela, bulego eskailera eta pasabide guztiak garbituko dira, ateen eta eskudelen heldulekuak barne.

Eskola bitartean garbitzaileren bat egonen da komunak gutxienez egunean bitan garbitu ahal izateko

#### 7.1.1. Gel hidroalkoholikoa eta eskuen garbiketa

Ikastetxeko espazio guztietan eta gela bakoitzeko sarreran, ikasleek eta langileek xaboi hidroalkoholiko banagailua izanen dute eskura, hara sartzean eskuak garbitzeko.

Atezaina egunero xaboi-banagailuak betetak egoteaz arduratuko da eta idazkaritzan abisua emango du horniketa bukatzeaz dagoenean.

Ikasleek egunean gutxienez bost aldiz garbitu edota desinfektatuko dituzte eskuak: eskolara iritsitakoan, patio aurretik, patio ondoren, jantoki aurretik eta jantoki ondoren.

#### 7.1.1. Espazioak aireztatzea

Ikastetxeak aerotermin sistemaren bidez espazioak airetzatzeko gaitasuna dauka. Hori horrela bada ere, gelen aireztapena areagotzearen beharra egonda, egunean hiru momentutan 5-10 minutuz aurrera eramango da.

- Atezainak eskola hasi baino lehen leihoak irekiko ditu.
- Patiora atera baino lehen eta klaseak bukatzean irakaslegoa bakoitzaren gelako leihoak irekiko ditu.

### **7.1.3. Gelak garbitzea**

Egunero eskola garaia bukatzean erabiltzen diren gela arrunten, bulegoen eta gela berezien garbiketa egingo da garbiketa enpresaren bitartez.

Gela berezien kasuan, gela hori erabili duten bai ikasle eta baita irakasleek saioa bukatzean erabilitako altzari eta materialak (mahaiak, aulkiak, ordenagailuak...) desinfektatuko dituzte. Horretarako gelan sprai desinfektatzaileak eta paper-biribilkia izango dituzte.

### **7.1.4. Ateak, leihoak eta eskailerak**

Gelen eta bulegoen ateak zabalik egongo dira barruan egiten den ekintzak uzten badu. Kasuren batean ateak ireki edo itxi behar baldin badira gelan dagoen irakasleak egingo du, ez ikaslegoak. Leihoak ireki eta ixtearen arduraduna ere bakarrik irakaslea izango da.

Goiko mailetan bereziki eskaileretako eskubandak ukitzea sahiestuko da.

### **7.1.5. Eguneroko kontrola**

Bai atezainak eta baita garbiketako langileek ere garbiketa eta materialaren kontrol taula bat izango dute egunero betetzeko eta idazkaritzan uzteko.

## GARBIKETA PLANA

GELA ARRUNTAK		
LANA	NOIZ	NORK
Aireztapena	Egunean hirutan	Atezainak eta irakaslegoak
Gelaren garbiketa orokorra	Egunean behin	Garbiketako langileek
GELA BEREZIAK		
LANA	NOIZ	NORK
Aireztapena	Erabili eta gero	Atezainak eta irakaslegoak
Ateen eskutokiak eta leihoak	Erabili eta gero	Irakasleek
Mahaiak eta aulkiak	Erabili eta gero	Irakasleek eta ikasleek
Materialak	Erabili eta gero	Irakasleek eta ikasleek
BESTELAKO ESPAZIOAK		
Eskaileren barandak	Egunean bitan	Garbitzaileek
Igogailuaren botoiak	Erabili eta gero	Irakasleek
Atariko bankuak	Erabili eta gero	Atezainak
Pasabideak	Egunean behin	Garbitzaileek
Ordenagailuak	Erabili eta gero	Irakasleek
Telefonoak eta aginteak	Erabili eta gero	Irakasleek
Argi etengailuak	Erabili eta gero	Irakasleek
Fotokopiagailua	Erabili eta gero	Irakasleek
Jantokiak	Erabili eta gero	Jantokiko langileek Garbitzaileek
Sukaldea	Erabili eta gero	Jantokiko langileek Garbitzaileek
Kristalak eta leihoak	Ikasturtean hirutan	Garbitzaileek
KOMUNAK		
LANA	NOIZ	NORK
Garbiketa orokorra	Egunean bitan gutxienez	Garbitzaileek

## 7.2. Maskarak erabiltzea

Haur Hezkuntzako ikasleek maskara eramango dute bere talde egonkorraren kanpo baldin badaude, hau da, lekualdaketetan pasabideetan, sarrera eta irteeretan eta patioan.

Lehen Hezkuntzako kasuan, gelan momentuoro maskara eraman beharko dute, talde egonkorrarekin badaude ere.

Ikasle guztiei koloreko bi maskara emango zaizkie beraien talde egonkorrei atxikitutakoa. Horrela, patio, sarrera eta irteera momentuetan bai beraiak eta baita irakaslegoa ere beraien taldeko kideak non dauden erraz identifika ditzakegu.

Ikastetxeak maskarak izango ditu ikasleren batek noizean behin galdu edota ahaztu baldin badu, emateko.

Halaber, irakasle guztiei maskara higienikoak emango zaizkie.

## 7.3. COVID-19 kasu baten aurreko jokabidea

Garrantzitsua da prebentzio eta detekzioa haurra eskolara etorri baino lehen hastea. Horregatik COVID-19arekin loturiko edozein sintoma baldin badu, bereziki sukarra, etxean gelditu beharko da. Neurri gomendagarri bezala ikastetxera etorri baino lehen tenperaturaren neurketa egitea proposatzen dugu.

Ikastetxean dagoen edozein pertsona (ikasle, irakasle, AZL langileak) COVID-19ekin zerikusirik duen sintomaren bat izaten badu protokoloa martxan jarriko da, hurrengo neurri hauekin:

### 7.3.1. Ikasleen kasuan

- Ikaslea Bikoizketa 4 gelara lagunduko da. Beste kasu berdin batekin okupatuta balego Bikoizketa 3 gela erabiliko da.
- Zuzendaritza Taldeak bai laguntzen ari den irakasle eta baita ikasleari ere maskara kirurgikoa emango die.
- Zuzendaritza Taldeak familiari deituko dio ikaslearen bila etortzeko eta Osasun Zentrora eraman edota 948 29 02 90 telefonora (Foru Komunitateko COVID-19rako telefono arreta) deituko dute.
- Test-a egin ondoren Osasun Agintariak izango dira bere talde egonkorreko bestelako ikasle eta irakaslegoarekin aurrera eraman beharko diren pausuak zehaztuko dutenak. Positibo emanez gero ikasleak ezin izango du eskolara etorri Osasun Zerbitzuek zehaztutako denboraz eta hala nola, eskolara etortzen diren eta berarekin bizi diren anai-arrebek ere ez.

### 7.3.1. Eskolako langileen kasuan

- Sintomak dituen helduak Zuzendaritza Taldeari abisatu dio eta Bikoizketa 4 gelara joango da. Beste kasu batekin okupatuta baldin badago Bikoizketa 3 gelara joango da.
- Bere Osasun Zentroarekin edota Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuarekin kontaktuan jarriko da ([seccion.prevencion.educacion@navarra.es](mailto:seccion.prevencion.educacion@navarra.es))  
telefonoa: 848 42 37 69/28 edo Nafarroako Foru Komunitateko erreferentziazko telefonoarekin (948 290 290) eta beraien argibideak jarraituko dituzte.

Agertzen diren sintomak larriak baldin badira, arnas hartzeko zailtasunarekin, 112ra zuzenean abisatuko da.

Gela erabiltzetik 5 ordu gutxienez pasa eta gero desinfektatua izango da.



## 7.2. COVID-19 aurrean kalteberak diren irakasle eta ikasleak

Langileak COVID-19aren aurrean kalteberak izatea eragiten duten egoerak hauek dira: eritasun kardiobaskularrak dituzten pertsonak, hipertentsioa barne, biriketako eritasun kronikoa, diabetesa, giltzurrunetako gutxiegitasun kronikoa, inmunodepresioa, minbizia tratamendu aktiboko fasean, gibekeko eritasun kroniko larria, obesitate morbida (IMC>40), haurdunaldia eta 60 urtetik goitikoak.

Langile horiek lanera itzuli ahalko dira, beren baldintza klinikoak kontrolatuta baldin badute eta aukera ematen badu, eta babes-neurri zorrotzak betez.

Zalantzarik izanez gero, langileak kontaktuan jarri beharko du Laneko Arriskuen Prebentzioko Sekzioko osasun-langileekin: (seccion.prevencion.educacion@navarra.es); telefonoak: 848.42.37.69/848.42.37.28.

LAPZko osasun-langileek SARS-CoV-2 koronabirusaren infekzioaren aurrean bereziki sentiberak diren langileen presentzia ebaluatu beharko dute, sentiberatasun berezi horren izaera ezarri, eta txostena emango dute, prebentzioko, egokitzapeneko eta babesteko neurriak zehaztuz. Horretarako, kontuan izan behar da pertsona horiek lan egin dezaten ea baldintza egokiak dauden, beraien osasunari dagokion arriskua handitu gabe.

Prebentzioko Sekzioak jakinaraziko dizkio langileari eta ikastetxeko ardura duen pertsonari langile hori bere lanpostura itzultzeko edo bertan jarraitzeko hartu beharreko neurriak.

# 8

## ANTOLAMENDU-NEURRI PEDAGOGIKOAK

### 8.1. Aldaketa metodologiko eta kurrikularrak

2013/14 ikasturtetik eskola ireki eta inklusiboaren alde jokatu dugu haur bakoitzaren ikaskuntza erritmoa errespetatzen duten metodologietan oinarrituta. Lehenengo urteetan hezkuntza ulertzeko modu hau KIDEAK proiektuan islatu genuen, Haur Hezkuntzako giroetan oinarrituta.

Orain dela bi ikasturte proiektua zabaldu zen Lehen Hezkuntzako 1.zikloan eta iaz, 19/20 ikasturtean, maila ezberdinen arteko tailerrak martxan jarri ziren 2. zikloan ere. 2020/21 ikasturte honetako helburua 3. zikloan maila ezberdinen arteko tailerrak ezartzea zen, horrela metodologia aktiboen eta mailen arteko erlazioak ikastetxeko ziklo guztietan ezartzeko helburua lortzearren.

Oraingo osasun egoerak antolaketan aldaketa esanguratsuak ezartzen eta planteamendu malguak sortzera derrigortzen gaitu, aurkitu ditzazkegun egoera ezberdinei egokitzuz.

Kontzienteak gara egoera berri honek haurren ikaskuntzan gabezi batzuk sortu dituela (euskararekin kontaktu gutxiago, sozializatzeko aukera gutxiago, ekintza manipulatio eta koordinazio psikomotore gutxiago...) eta horregatik hurrengo ikasturtean gabezi horiek konpentsatzeko hezkuntza praktikak aurrera eramatea lehentasunezkoa izango da.

Aurreko ikasturteekin alderatutako aldaketa metodologiko nagusia mailen arteko giroak eta tailerrak ez egitea izango da. Hezkuntza Departamentuko ildoetan oinarritutako Kontingentzia Planak ez du alde batetik, talde egonkor ezberdinen arteko interakzioa baimentzen eta bestetik, ikastetxetik lekualdaketak gutxitzea gomendatzen du.

Maila eta talde ezberdinen arteko interakzio presentzial honen gabezia bestelako ekintza motibagarriekin ordezkatu ditugu hala nola, ekintza ezberdinen grabazioak, antzerkiak, proiektuak... beste geletan erreproduzitu daitezkeenak, eskolako irratia eta megafoniaren erabilera elkarri entzuteko eta kursoan zehar sortuko diren bestelako ekintzak hurrek kontaktua mantentzeko eta ikastetxeko identitatea ez galtzeko. Ikastetxe mailako proiektuak ere planteatu dira, erakusketak... beti ere osasun egoerak eta legediak baimentzen badituzte.

Aurreko ikasturteetan bezala giroak eta tailerrak ez egin arren, gela bakoitzean metodologia aktiboen erabilera mantenduko dugu, ikasteko, ikertzeko, miatzeko...desioa pizten dutenak, ikasleagoa motibatu eta talde egonkor bakoitzeko kideen arteko bizikidetzaz errazten duten metodologia parte-hartzaileak.

Egoera berri hau seguruenik aldarora izango da eta horregatik espazio eta ekintzen antolaketaren erabakia momentu bakoitzean egokitzen joango da. Printzipioz eta arau orokor bezala Haur Hezkuntzako eta lehenengo ziklorako aurreikusitako giroen ordutegia mantenduko dugu eta baita, bigarren eta hirugarren zikloetako tailerrak ere.

Egoera eta momentu bakoitzerako egon daitezkeen aukera ezberdinak baloratzen ari dira.

Aukerarik ziurrena erreferentziako geletan **mikroespazioak** antolatzea da. Gela bakoitzean ikaskuntza txoko ezberdinak egongo dira, zeinetan ikasleagoa giro edo tailer bakoitzeko ikaskuntza espezifikoen material eta proposamen ezberdinak aurkituko dituzte.

Erabakia ikasturtea hasi baino lehen hartuko da, ziklo bileretan egindako hausnarketa eta gero, horrela, ikasleagoaren ongizate fisiko, emozional eta sozialerako egokia den antolaketa aukeratuko da, beti ere Kontingentzia Planeko jarraibideetan onartuta badago.

Konfinamendua dela eta, aurreko ikasturtean landu gabe utzi ziren eduki eta etorkizuneko ikaskuntzak barneratzeko beharrezkoak diren eduki kurrilukarrak irailan landuko dira.

Programazio didatikoak eta ebaluatzeko sistemak oinarrizko ikaskuntzei egokitu beharko dira, curriculumaren ikuspegi holistikoagoa kontutan edukiz, ikaslegoaren gaitasunen garapena emanez konpetentzien ikaskuntzaren barnean, gaitasun digitala bereziki indartuz.

Ikasturte honetan zehar aurreikusitako Planeko lau egoerei egokitutako ebaluazio instrumentu eta irizpideak zehaztuko dira, hala nola, egoera guztietan eman daitezkeen aniztasunaren arretarako neurriak zehaztuko dira ere.

## **8.2. Gaitasun digitala indartzeko Plana**

### **8.2.1. Helburuak**

Egungo egoerak eskolen jarraipena bermatuko duen agertokia zehazteko beharra agerian uzten du. Proposamen hau telematikoa, azkarra eta ziurra izan behar da 2020-2021ko ikasturtean gertatu ahal diren etenaldiei erantzuna eman ahal izateko.

Aurreko ikasturteko bat-bateko ikastetxeen itxierak bat-bateko erabaki ez bateratuak ekarri zituen.

Horregatik Gaitasun digitala indartzeko Plan honen helburu nagusia da eskolako proposamen bateratua planifikatzea, irakaskuntza ez-presentzialaren kasuan bermatuko duena:

- Hezkuntza komunitate osoarentzako formakuntza (ikasle, irakasle eta familiak) ikasturtean zehar erabiliko diren tresna teknologikoen erabileran.
- Ikasle eta familiekin irakasleek mantendu behar duten komunikazioa.
- Teknologia berrien eta metodologia berrien arteko oreka, esplorazioa, manipulazioa eta sormena landuz eta eskolaren funtsa, baloreak, nortasuna ez galtzen lagunduz.
- Nahiz eta distantzia egon, nahitaezko lotura afektiboak eta sozialak mantendu haurren garapen psikosozial egokia emateko.
- Ikastetxeko ikasle bakoitzaren plan akademiko ez-presentzialaren garapena eta irakaskuntza bermatu beharrezko baliabide teknologikoen bidez.

## 8.2.2. Baliabide digitalak

Oinarrizkoa iruditzen zaigu nahiz eta diztantzian egon gelako dinamika islatzeko gela birtualaren eraketa. **Classroom**-en gela hori sortzeko aukera aurkitzen dugu. Gela hurbila, atsegina, ikasleen arteko eta baita irakasle-ikasleen arteko harremanak ematen diren eta lanak, abestiak, bideoak, azalpenak... partekatzeko aukera ematen duena.

Horregatik ikastetxeko bi etapetarako Classroom eta berarekin doazen software-ak (Drive, Meet) aukeratu ditugu, beraien erabilera etapa bakoitzaren ezaugarriei egokituz.

Gainera, konfinamendu momentuetarako oinarrizko tresna izan arren, Classroom eskola eta familiaren arteko ohiko komunikazio bide bezala bihurtu daitekela uste dugu, informazioa partekatzeko puntu bezala.

Classroom Gsuite For Education plataforma intuitiboa eta erraza izateaz gain espazio telematiko segurua ematen du Hezkuntza Departamentuak baieztatutako GSuite kontuekin funtzionatzen duena.

Meet Classroom-era lotutako plataforma integratua da zeinak segurtasun (G suite kontuarekin sartzen da) eta sartzeko erraztasun gehiago ematen duena (ez da aldioro ID eta pasahitza bidali behar). Gainera ikastetxeko G suite korporatiboaren bidezko komunikazio honek plataformaren barruan barneko komunikazio bat bermatzen du.

Classroom-aren erabileran planteatutako helburuak eskolaren egunerokoan txertatzea da, Lehen Hezkuntzako beste prozesu bat bezala ikusita, maila bakoitzari bere erabilera modua egokituz, eskeintzen dituen aukera guztiak probestuz eta gaitasun digital kurrikularren lorpena bermatuz.

## 8.2.2. Baliabide digitaleko formazioa

Ikasleen ikaskuntza eta irakasleen laguntza egokia bermatuko duten baliabide digitalen erabilera arina lortzeko ingurune birtual hori erabiliko duten pertsona guztien prestakuntza bermatzea behar beharrezkoa da:

- **IRAKASLEAK:** irailaren lehenengo asteetan irakasle guztiak formakuntza bi saio jasoko dute eskolako Hezkuntza Teknologien arduradunek eskutik, Classroom eta lotuta dituen Software-a ezagutu eta trebatzeko asmoz. Era berean, Gaitasun Digitala indartzeko Plana ebaluatu, aberastu eta honi buruzko ideia berriak trukatzeko irakasle oso arako beste bilera batzuk planifikatuko dira, hiruhilean behin gutxienez.
- **IKASLEAK:** irailaren lehenengo asteetan Lehen Hezkuntzako talde guztiak Classroom eta Meet ezagutzeko eta horien erabilera trebatzeko formakuntza jasoko dute, tutoreen eskutik.
- **FAMILIAK:** Classroom eta Meet tresnetan sartzeko eta erabiltzeko argibideak emango dituen tutoretza-bideo baterako sarbidea izango dute.

Irulegi eskolan haurren Interneteko segurtasuna zaintzeko eta sareak eta baliabide digitalak egoki erabiltzeko behar den arduraz ohartzeko beharra ikusten dugu. Ikasturtean zehar familiei eta ikasleei zuzenduriko tailer edota hitzaldien bidez gai hau lantzeko aukeraren bideragarritasuna aztertuko dugu.

### 8.3. Irakaskuntza ez-presentzialaren Plana

Oraingo osasuna egoera honen ondorioz 2020/21 ikasturtean zehar beste konfinamendu batzuk izan ahal ditugula kontuan hartu behar dugu.

Lehen aipatu dugun moduan Plan honen helburu nagusietako bat teknologia berrien erabilera eta eskolaren ildoko proposamenen arteko oreka bilatzea da. Asanblanda birtualak antolatzeke eta proposamenen eskaintza egiteko orduan pantailak gehiegi ez erabiltzea kontuan hartzea ezinbestekoa da.

Asmo horrekin mota ezberdinetako proposamenak tartekatuko ditugu. Ikasturte hasieran irakasleek jarduera inprimatuaren dossier bat prestatu dute familia batzuek inprimagailurik etxean ez dutelako eta proposamen guztietan sarbidea izateko berdintasuna bermatu ahal izateko.

Edozein kasutan haurren garapen emozional, sozial, psikomotore eta sensorial egokia bermatzen dituzten proposamenak ziurtatu behar dira, ikaskuntza arlo guztien inguruko proposamenak, hain zuzen ere.

Laburpen moduan irakaskuntza ez presentzialen egoeretako eskola jardunaldian horrelako jarduerak proposatuko dira, txandakatuak:

- Classroom bideko jarduerak
- Paperean inprimaturiko jarduerak
- Ikaskide eta irakasleekiko Meet bidezko asanbladak
- Eskulanak
- Ariketa fisikoak
- Jarduerak artistikoak (plastiko zein musikalak)

Talde bakoitzarentzat bere ezaugarriak eta beharretara hobekien moldatzen den planteamendu egokiena lortzeko irakasleen arteko koordinazioa ezinbestekoa izango da.

### **8.3.1. Ikaslegoaren autonomia maila**

Hurrek tresna eta baliabide digitalen erabileran duten laguntza edo autonomia maila zehazteko irizpide nagusia haien adina eta heldutasun maila izango da. Honek, neurri handi batean, plataforma eta beste programak menderatzeko behar diren gaitasunen eskuratze-maila zehaztuko dute (kontzentrazio-ahalmena, irakurriaren jariora eta ulermena...) baita sarean eskuragarri dagoen informazio guztiaren benetan erabilgarria eta egiazkoa aurkitu eta aukeratzeko espiritu kritikoa ere.

- Haur Hezkuntza: Classroom eta lotuta dituen beste Softwareen inguruko formakuntza, komunikazioa eta erabilera familiei zuzenduko zaie hurrek oraindik tresna digitalen erabileran autonomia maila baxua dutelako.
- Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. maila: Classroom eta lotuta dituen beste Softwareen inguruko formakuntza, komunikazioa eta erabilera familiei eta ikasleei zuzenduko zaie hurrek tresna digitalekin lan egiteko jada gai direlako helduek lagunduta eta gainbegiratuta.
- Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. maila: Classroom eta lotuta dituen beste Softwareen inguruko formakuntza, komunikazioa eta erabilera ikasleei besterik ez zaie zuzenduko hurrek autonomoki Classroomen sartzeko eta nabigatzeko gai direlako.

### 8.3.2. Aniztasunaren arreta

Irakaskuntza ez presentzial egoeran eskolak ikasle bakoitzaren gaitasun, behar, interes eta erritmo ezberdinak errespetatzeko neurriak martxan jarriko ditu.

Tutoreek beren taldeko haur bakoitzak ikasteko duen erritmo ezberdinei hezkuntza jarduerak moldatzeko ardurak izango dute. Horretarako proposamen irekiak eta zailtasun maila ezberdinak dituztenak lehenetsiko dira. Neurri hau nahikoa ez balitz beharren arabera beste egokitzapen batzuk egingo dira. Horretaz gain tutoreek etengabeko komunikazioa izango dute familiarekin jarduerak uneoro ikasle hauen behar eta garapenera moldatu ahal izateko. Era berean, ikasle hauen irakasle guztien koordinazioaz arduratuko dira irakasleak denen arteko koherentziaren bila.

Tutoreek Hezkuntza Laguntza Unitatearen laguntza eta aholkua izango dute. Orientatzaileak HLUren partaideen lana koordinatuko du ikasturtean zehar logopeda edota Pedagogia Terapeutika irakaslearen laguntza jasotzen duten ikasleen garapeneraren jarraipena bermatzeko.

Unitate honek beharrezkoa balitz material eta proposamenen egokitzapena proposatu eta gidatuko du eta familiarekin komunikazioa mantenduko du.

Hezkuntza behar bereziak dituen ikasle bakoitzaren banakako jarraipena egingo da bere ikaskuntza eta ongizate emozionala bermatzeko bai trastorno, diskapazitate edo heldutasun atzerapen ezberdinek sortutako ikasteko zailtasunen kasuan bai goi gaitasunen kasuan.



### 8.3.3. Harremanak eta euskara

2019-20 ikasturteko azken hiruhilekoan talde gehienek maiztasun handiago edo txikitxikiagotan irakaslegoarekin bideo-deiak edota asanblada birtualak egin zituzten. Hau guztia esperientzia aberasgarri bezala ikusten dugu eta konfinamendu kasu berrien aurrean mantentzea proposatzen dugu haurren arteko interakzio falta eta euskararen erabilera konpentsatzeko asmoz.

Irulegi eskolako familia gehienak gazteleradunak izanda, hurrek haien etxeetan euskararekin harreman eskasa dute. Honen ondorioz eta euskara haien ikasteko hizkuntza dela kontuan hartuta, erabat beharrezkoa da euskara hobetzeko behar diren baliabide eta komunikazio-egoera egokiak sortzea.

Konfinamendu garaian helburu hauek lortzeko tresnarik egokiena Meet da, Classroom-i loturiko plataforma. Gure topagune birtuala izanen da, ikasleen ezaugarri eta jardueraren helburuaren arabera mota ezberdinetako bilerak egiteko aukera ematen diguna:

- Talde osoa: Talde osoaren topaketa momentua da, taldearen identitatea mantentzea eta/edo helduak azalpen orokor bat ematea nahi dugu. Ikaslegoaren parte-hartzea neurritzkoa da. Iraupena haurren adinaren arabera izango da.
- Talde ertaina: Proposamen zehatzagoak azaltzeko eta ikaslegoaren parte-hartze eta aho-ekoizpen handiagoa lortzeko bilera.
- Talde lan txikiak: Lan proposamen bat partekatzen duten 4 edo 5 haurren asanblada. Akonpainamendu pertsonalagoa eta hurbilagoa lortzen da. Haurren partehartze eta aho adierazpena errazten ditu.
- Indibidualak: Tutorearen inizatibatik eta bakarrik beharrezkoak direnean (laguntza emozionala, zalantza edo arazo zehatz baten ebazpena...). Konexioan familia kide baten presentzia gomendatzen da.

Zikloetan zuzendaritzak emandako argibideetan oinarrituta asanblada birtualen maiztasuna, iraupena, taldekatze mota eta edukiak erabakiko diren arren konexioa ezin da inondik inora jardunaldi osoa iraun. Izan ere, Classroom ez da eskola presentzialaren ordezkaria proposamenetara iristeko eta ikasleekiko lotura eusteko tresna baizik.

Familiiek duten dispositiboetarako sarbide eta konexioari buruz behar den informazioa biltzeko arduradunak tutoreak izanen dira. Alderdi hauetan gabeziren bat antzematekotan Zuzendaritza Taldeari jakinaraziko diote egoera aztertzeko eta konponbideak lehenbailehen hartu ahal izateko eta konfinamendu garaian ikasle horien konexio falta edo isolamendua saihesteko.

Proposamen hauei esker eskola eta familien arteko komunikazioa erraztea eta eskolaren izaera eta haurren ongizatea eustea espero dugu.

### **8.3.4. Tutoretza Plana**

Talde egonkor bakoitzeko tutorea ikasle bakoitzari buruzko informazio guztia zentralizatzeaz arduratuko da, baita ikasle horren irakasle guztien koordinazioaz ere oinarrizko kompetentziak eskuratzen dituela zainduz. Aldi berean, tutoreak familiekin harramanatzeko bideak bilatuko ditu alderdi akademiko eta emozionaletan lagundu ahal izateko.

Komunikazio bide nagusiak posta elektronikoa eta banakako elkarrizketak (telematikoak edo telefonoz) izanen dira. Bilerak aurrez aurrekoak izan ahal dira Kontingentzia Plan honetan agertzen den 1. egoeran beti ere tutoreak beharrezkotzat jotzen badu.

Tutoreek familia bakoitzarekin gutxienez ikasturtean bi bilera burutuko dituzte, lehenengoa lehen hiruhilabete bukaeran eta bigarrena ikasturte bukaeran.

Tutoreek taldearekin zerikusia dute informazio orokorrak posta elektronikoz bidaliko dizkie familiei, eskolako web orrian dauden oharrak gogorarazteko eta beharrezkoa den edozein beste informazio guztiak jakinarazteko.

Ikasturteko lehen asteetan tutoreak konfinamendu egoera bati begira beharrezkoa den informazio guztia bilduko du:

- Etxean gutxienez dispositibo digital bat dute
- Etxean interneten nabigatzeko kalitatezko konexio egonkorra dute
- Etxean lan egiteko eta kontzentratzeko espazio egokia du
- etxean erreprografia-dispositiboren bat dute
- Etxean pertsona heldu baten laguntza izango du
- Familiaren lan egoera

## 8.4. Hornidura teknologikoa

2019-20 ikasturteko hirugarren hiruhilekoan egindako datuen analisiaren ondorioz, Hezkuntza Departamentuak konektibitate eta ekipoak behar dituen 4º mailatik gorako ikasle goari bermatuko dio, izan ere adin honetan duten autonomia maila dela eta, ikaskuntza mota honetarako etekin ezin hobe bermatu dateke.

Bestelako Lehen eta Haur Hezkuntzako mailetarako Hezkuntza Departamentuak ikastetxeekin lan egingo du familiek beharrezkoa duten materialen eskuragarritasunerako neurriak sortuz.

# 9

## PLANAREN JAKINARAZPENA

Plan hau eraginkorra izateko familia, ikasle zein ikastetxeko langileei komunikatzea nahitaezkoa izango da, modu argi batean bestelako interpretazioetara eraman gabe.

Kontingentzia Plana familiei nahiz langileei korreo elektronikoaren bitartez bidaliko zaie eta ikastetxeko web orrialdean eguneratuta egongo da deskargatzeko.

Planaren izaera dinamikoa dela eta, aldaketa esanguratsu bat dagoenean familiei nahiz ikastetxeko langileei korreo elektroniko baten bidez jakinaraziko zaie.

Tutoreak Planaren alderdi garrantzitsuenak komunikatzeko arduradunak izango dira, zuzenean bere ikasleei eragiten dietenak. Horretarako, irakasle taldea zuzendaritza taldeko laguntzarekin lehenengo egunetarako materialak sortuko ditu.

Zuzendaritza taldeak familiei bidaliko dien laburpen bat sortuko du, bertan errespetatu beharreko sarrera eta irteerak, ordutegiak, neurri hegienikoak eta segurtasunezkoak zehaztuko ditu.